

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko maiatzaren 23a

\*



Balada tierna de un gamusino antzeztu duen T'Ombliigo taldeko kideak.

ASUN ESTEBAN

## Antzerki Topaketan leihotik begira

■ Apirilaren 29az geroztik, Nafarroako Gobernuako Kirol eta Gazteriaren Institutuak antolatuta, Antzerki Topaketak 97 egiten ari dira Nafarroako Antzerki Eskolan. Denetara hamasei taldek parte hartuko du. Dagoeneko hamabi talde igo da aretoko taula gainera. Bihar, Xahutondo taldeak aurkeztuko du *Memento*, eta etzi, Pabellon Teatro taldeak *Noches de amor efimero*. Datorren asteburuan amaituko da aurtengo ekitaldia, Keinu Antzerki eta Irubideko Antzerki Tai-

lerraren eskutik. Antzerki Topaketek Nafarroako antzerki gaztea zertan den erakusten dute, baina aurtengo antolaketak talde gehien haserrea eta desadostasuna piztu du. Bestalde, Nafarroako Antzerki Eskolatik berriki irten diren ikasleek osatu bi talderen lana ikusteko aukera eskaini du lehiaketak, T'Ombliigo eta Pasadas la 4 konpainiena, alegia. Profesional izan nahi dute, eta hori lortzeko, bide berriak jorratu nahi dituzte. ■

### Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Gaur futbolaz solastatzen utziko didazue, ezta?

Utzi beharko! Garaipenaren ondorengo liluran murgildurik nago oraindik, hodeietatik ezin jausiz eta lau haizeetara zabaltzeko gogoa dut. Bai, bai.... Liga irabazi dugu, Gipuzkoako Liga! Xoko Ttikia berri ez duen norbait baldin badago, jakin dezala Gure Txokoa futbol taldeko kide naizela eta nafarra izan arren, ni neu eta taldea bera ere bai, Gipuzkoako Ligan jokatzeko dugula, arazo geografikoak nonbait.

Beraz, gaur futbolaz solastatuko naiz, baina Ronaldo eta konpainia alde batera utziz. Aitziber aipa dezaket horien

ordez, garaipena eman ziguten bi golak sartu zituen neska. Ligako azken partidua bigarrenaren kontra jokatu genuen, Elgoibarren kontra, eta Elgoibarren. Zenbat puntura zegoen? Bira, bira bakarrik. Partidua galduz gero, Liga akabo. Eta galtzen hasi gainera, baina ederki buelta eman gero! Mirentxu nekazekin berriz erakutsi zuen bere gogoa, bere sasoi. Maiderek hegaletik egindako jokaldiak ere ez ziren nolana-hikoak izan.

Elgoibarreraino joan ziren zaleen animoek eta txaloek garaipenari balio handiagoa eman zioten. Bukaeran zoramen bihurtu zen hasierako urdurita-

suna. Inoiz ez zait ura horren ongi sartu partidu baten ondotik, Bilboko ura erran nahi dut.

Juana kapitaina, ikurrina besoan ageri zitzaiola, kopa eske joan zenean denak kontent, eta orduan ez ginen oroitzen zenbat kostatu zaigun kopa hori eskuratzea, zenbat entrenamendu, zenbat izerdi, zenbat partidu zail, zenbat larunbat arrats etxean... Merezi duela erran beharko.

Zikiro entrenatzaileak ere merezia zuen. Ze gauza! Bera da gaurko Xoko Txikiko protagonista gizonetzko bakarra, eta hori futbolaz ari naizela! X

## Xoko Ttikia azkenean!

## \* GURE AUKERAK

## KONTZERTUAK

**Aitzoain:** Color Humano taldea kontzertuan ariko da gaur, hilak 23, gaueko 23:30etatik aurrera, Artsaia Musik Club aretoan. Sarrera 800 pezetan (32 libera) izanen da salgai.

**Otsagabia:** Alboka folk taldearen kontzertua izanen da bihar, hilak 24, 20:30etan herriko pilotalekuan.

**Gares:** Ska-p taldea kontzertuan ariko da bihar, hilak 24, gaueko 23:00etatik aurrera, Gares aretoan.

## ZINEA

**Tafalla:** Ipar haizearen itzulera marrazki bizidun pelikula euskaraz pantailaratuko dute bihar, hilak 24, arratsaldeko 18:00etan, Zinema Españolen. Sarrerak 100 pezetan (lau libera) izanen dira salgai.

## ANTZERKIA

**Tafalla:** Oihulari Klown konpainiak *Alfonbra majikoa* obra taularatuko du Kultur Etxean heldu den asteazkenean, hilak 28, arratsaldeko 18:00etan.

## ERAKUSKETAK

**Burlata:** Jose Luis eta Fernando Esparza anaien margoak herriko Kultur Etxean ikusgai izanen dira maiatzaren 29ra arte.

**Iruñea:** Iruñeko IV. Margolaritza Lehiaketan parte hartu duten artista hoberenen lanak ikusgai izanen dira Gotorlekuko Armen aretoan, ekainaren 15era arte.

**Zizur Nagusia:** Asuncion San Martinen *Iruñerriko paisaiak* margo erakusketa ikusgai izanen da ekainaren 1a arte Kultur Etxean.

## BESTELAKOAK

**Iruñea:** Arturo Kanpion euskaltegiak bere 25. urteurrena ospatuko du bihar, hilak 24. Eguerdiko 12:00etatik aurrera Gaztel plazan harrijasotzaileak izanen dira (Perurena aita-semeak), dantzariak (Iruña taldea) eta bertsolariak (J. Sarasua, J. Izarzelai, J.F. Argiñarena, M. Taberna, M. Gomez eta M. Burgi). 14:30etan herri bazkaria eginen dute Aranzadiko kiroldegian, eta horren ostean dantzaldia izanen da Jarauta 69 txarangarekin.

**Corella:** Nafarroako Trial txapelketako lasterketa izanen da igandean, hilak 25, goizeko 10:00etatik aurrera, Foyas izeneko lursailan.

**Lizarrar:** Margolaritza tailerra antolatu du Gustavo de Maeztu Museoak. Pedro Salaberrri izanen da horren zuzendaria. Abuztuaren 18tik 29ra iraunen du. Klaseak goizeko 10:00etatik 15:00etara eta 16:00etatik 17:30etara izanen dira, eta larunbatean eta igandean jai izanen da. Parte hartzaileek 15.000 pezeta (600 libera) ordaindu beharko dute. Izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko dei 54 60 37 telefonora.

## nafarkronika

Kike Diez de Ultzurrun

## «Horrek, horrek, Campionek dauka errua»

Jarria zegoen Jauregiko geletan eta gantzetan barrena, harat-honat, ibiltzera. Atarian nahiz zenbait zokotan etxearen goardian zeuden zapelgorriek agurtu egiten zuten haren itzala somatu orduko. Ohituta zegoen aretoetara sartzera atean kan-kan jo gabe. Kristalez bertaldea, haizeak zabalduz, Nafarroako armariaren kateak ikusten zituen, Francok oparitan emandako ohe-sariak inguratuta, eta, aldamenean, harrokeriaz betetako arrano handiustea agertzen zen, zelatan. Haren aginteak, agerikoak nahiz azpi-koak, ez zuen mugarik 36garren urteko uztailetik goiti, bederen. Lasai ederrean zebilen. Urrats bakoitzak arrandia hantpatzen zion, eta, ondorioz, handinahi ibiltzen zen, harik eta, brastakoan, gizon buru soil baten begiradak lasaitasuna urratzen zion arte. Ezin eramana gertatzen zitzaion begirada sakon hura, jasangaitzak gizon haren buru tentea, janzeraren dotorezia eta begitarteari zerion noblezia. Egutero, buruz buruz, agertzen zitzaion gainera, Cigak pintatutako koadrolan eder hura, Diputazioan zintzilik dagoena. Halakoetan, ikastolak, gau eskolak, euskal akademia, Principe de Viana euskal aldizkaria eta bertze zenbait mamubeltz kaskoan harrotzen zitzaizkion, eta, halako moldez harrotu, ezen behin batean mila irain-pusketan lehertu baitzen gizajoaren bihotz zuzen eta baretua. Egun

hartan, kolore gorriak hartuta, besoak altxatu, ukabilak estutu eta lerrootara aldatu ez daitezkeen zenbait hitz itsusirekin batera ondoko oihu hau bota zuen Del Burgoren aitak koadroaren aurrean, mehatxukor: «Horrek, horrek, Campionek dauka guztiaren errua...».

Beraz, aitzinera begira ere, izan dadila Campionen irudia halako jendajeen amesgaiztoa eta izan dezala On Arturok horren guztiaren errua, seinale eskola ona eta handia ekartzen ari dela. Zorionak eta anitz urtez.



## asteko pertsonaiak

Mariano Izeta  
Idazlea

■ Mariano Izeta euskaltzalea seme kutun izendatu zuen joan den astelehenean Baztango Bailarako Batzar Nagusiak. Batzarkideek aho batez onartu zuten Patxi Oiarzabal alkatearen izendapen proposamena. Izeta 1915eko uztailearen 15ean jaio zen, Elizondoko Mutilenea etxean. Hizkuntzalari autodidakta trebeak lan mardula egin du euskal hizkuntzalartzan zein euskal kulturaren oro har. Euskaltzain ugazlea da, eta, besteak beste, bi eleberririk argitaratu ditu: *Dirua galgarri* eta *Nigarrez sortu nintzen*. Horieta gain, ehundaka artikulua idatzi ditu, eta hiztegi bat: *Baztango hiztegia*. Hiztegiak Baztango euskarazko bi mila hitz biltzen ditu, eta 200 bat esaera zahar. Duela gutxi argitaratutakoa da, eta lehen argitalpena agortu egin da jada.

Enrique Martin  
Osasunako entrenatzailea

■ Sadar futbolzelaia. Bigarren zatiko lehen minutua. Osasunako jokalaririk batek hegaletik barnekaldi azkarra egin eta gero arearantz pase zehatza egin du. Lagunak burukada ederraz baloia sareetara bidali du. Irakurleak jokaldia duela hamar urte gertatu zela, eta jokalaririk Martin eta Irigibel zirela pentsa lezake. Ez da, ordea, horrela. Jokaldia joan den igandean gertatu zen, eta jokalaririk Morales eta Palacios ziren. Martin gertu zebilen, baina entrenatzaile lanetan. Arrizabalagako teknikariak harrobiko jokalaririk gazteekin duela hamar urteko izpiritua berreskuratu du, eta miraria gauzatzear dago, Osasuna jaitsieratik salbatzear. Joan den igandan Mallorca liderra garaitu zuen, eta aste honetan Alaves garaitu nahi du, miraria gauzatzen segitzeko.

## ahaztu gabe!

IZARBEIBARKO  
EUSKARAREN EGUNA

**Izarbeibar:** Izarbeibarko euskararen eguna ospatuko dute heldu den igandean, hilak 25, Eunate monastegian. Goizeko 10:00etan txirindula martxa aterako da Garestik, 10:30etan Obanostik igaroko da, 10:45etan Muruzabaldik, eta 11:30aldera Eunatera helduko da. 12:00etan Meza euskaraz izanen da, eta Obanosko abesbatza kantari ariko da. 13:00etav izanen dira dantzariak, herri kirolak, txistulariak, gaitariak, txalapartariak eta trikitilariak. 14:30etan herri bazkaria eginen dute, eta trikitilariak eta gaitariak hori alaitzen ariko dira. 16:00etan haurrentzako antzerkia euskaraz gozatzeko parada izanen da Sanu taldearen eskutik. Azkenik, 18:30etan Txirindula martxaren itzulera hasiko da. Horren guztiaren aurretik, Roldan Jimeno historialariak *Izarbeibarko mitoak eta kondairak* izeneko hitzaldia eskainiko du ostiralean, hilak 23, Obanosko eskoletan 20:00etan. Ekitaldien antolatzaileak dira Obanosko eta Garesko euskaltegiak, Obanosko eta Garesko guraso elkarteak, eta Izarbeibarko euskaltzaleak. Horiak guztiek Nafarroako Gobernuaren laguntza gozatu dute.

## adi!

## Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egutero astelehenean ostiraleri, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

## Xorroxin Irratia FM 107,5

Egutero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen dako saioa.

## Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

## Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiraleri Txirristi-Mirristi haurrentzako saioa 12.30etan.

## Bera

## Gure Txokoako neskek txapeldun

Bestalde, Mugaz Gain eskolarteko antzerki jaialdia astelehenean hasiko da

**B**erako herritarrek badeute zer ospatu, Gure Txokoa taldeko neska futbolariak Gipuzkoako liga irabazi baitzuten joan den larunbatean, Elgoibarren hango taldea garaitu ondoren. Halaber, astelehenean hasi eta asteazkenean bitartean, Mugaz Gain antzerki jaialdia egingen dute.

Jon Abril / Bera



Gure Txokoa taldeko jokalariek zaleekin batera garaipena ospatzen.

J. M. TEILETXEA

LARUNBATEAN Elgoibarko Mintxeta futbol zelaietan jokatu-tako ligako azken partiduan garaipena lortu ondoren lehendabiziko postuan amaitu dute Berako Gure Txokoako neskek aurtengo Gipuzkoako liga. Azken partiduan lehen bi sailkatuek jokatzeko zuten aurrez aurre. Berako neskek berdinketarekin nahikoa zuten, hiru puntuko alde ateratzen baitzieten Elgoibarko neskek.

Partiduaren bigarren minutuan Elgoibarko neskek markagailuan aurrea hartu arren, atsedenerako berdinketa erdietsi zuten Gure Txokoakoek, Aitziberren golari esker. Partidua amaitzeko zela, Aitziberrek bigarrena lortu zuen, eta hartara, Gipuzkoako liga irabazi zuten, orain hiru urte bezala.

Garaipen horrekin, Euskal Herriko liga nazionalen jokatzeko eskubidea lortu dute beratarrek, aurreko bi urteetan jokatu duten mailan, alegia. Iaz mailaz jaistea erabaki zuten jende kopurua eta dirua arrazoiz zirela, eta ez zelaitako emaitzek behartuta. Horregatik, ez dirudi datorren denboraldian igoko direnik.

**Mugaz Gain antzerki jaialdia** • Bestalde, astelehenean Mugaz

Gain antzerki jaialdia hasiko da Beran. Iparralde, Gipuzkoa eta Nafarroako zortzi talde ariko dira Berako Kultur Etxean asteazkenean bitartean, Lamixine BAT Berako antzerki taldeak antolatuta.

Astelehenean hasiko da antzerki jaialdia *Lady Macbeth* antzezlanarekin. Goizeko 11etan izango da emankizuna eta DBHko 1. eta 2. mailakoei eskainia dago Iruñeko institutuko taldearen lana. Arratsaldean, Lesakako Irain eskolakoek Virginia Imazen *Ehiztariak* lana jarriko dute taula gainean, Lehen Hezkuntzako 1.

eta 2. mailakoak ikusle izanen dituztela.

Asteartean hiru talde ariko dira: Berako Labiaga ikastolakoek sorturiko *Lau ipuin* ikusi ahal izango dituzte eskolaurreko umeez goizeko 10etan; Donostiako Peñaflorida institutukoek Woody Allenen *Dios* lana aurkeztuko dute DBHko 3. mailako IEEko 2. mailako ikasleen aurrean eta arratsaldeko 3:30etan Ricardo Baroja eskolakoek *Sorgiñak* ikuskizuna aurkeztuko dute 3. eta 4. mailakoei.

Jaialdia asteazkenean bukatuko da. Goizeko 10etan Hen-

daiako Antzerkilariak taldekoek eta Berako Jesusen Bihotza ikastetxeok *Etiopia* aurkeztuko dute, 5. eta 6. mailakoei eskainia. Irakaskuntza ertainetako ikasleentzat bi lan prestatu dituzte, bat bertzearen atzetik. Lehenengoan, Donibane-Lohizuneko Ravel Lizeokoak ariko dira, Espainiako gerra zibileko bizipenak kontatuko dituzte *Lekukotasunak* lanaren bidez.

Antzerki jaialdian Irungo Plaiaundi institutuko ikasleak ariko dira, *Aquel fatidico dia* lanarekin, martxoaren 8aren ingurukoa. X

## Irurtzun

## Trinitate bestak gaur arratsaldean hasiko dira

■ Igandean erromeria egingen dute herritarrek

Erredakzioa / Iruñea

IRURTZUNDAREK Trinitate bestak ospatuko dituzte gaur, bihar eta etzi. Gaurko egitaraua arratsaldeko sei eta erdietan hasiko da. Ordu horretan, herriko Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute. Ondoren, ordubete geroago, Irurtzongo txirringulariek erlojupeko lasterketa egingen dute.

Arratsaldeko zortzietan eta gauerdian, bestalde, Elurte taldeak dantzaldia eskainiko du; eta goizaldeko hiruretan, Doctor Kronismo taldearekin kontzertua izanen da.

Bihar goizean kirola izanen da nagusi berriro ere. Pilota partiduak jokatu dituzte eguerdian. Ondoren, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, herri bazkaria egingen dute, eta arratsaldeko seieta, haurrentzako txokolatetea. Zortzietan eta gauerdian, Eclipse taldeak alaituko du giroa.

Igandean, azkenik, Ergako Trinitatero erromeria egingen dute Irurtzongo herritarrek. Goizeko hamaiketan meza izanen da euskaraz, eta eguerdian erdaraz. Arratsaldeko ordu batean, luntxa hartuko dute guttiak. X

## Lekunberri

## Aralarko Ibilaldia etzi egingen dute mendizaleek

■ Herriko Ttutturre Mendi Taldeak antolatu du

Edume Elizondo / Iruñea

LEKUNBERRIKO Ttutturre Mendi Taldeak antolatuta, Aralarko Ibilaldia egingen dute igandean, bosgarren urtez. Aurreko ekitaldian lortu arrakastak aurrera egiteko indarra eman die antolatzaileei, eta, azken urteetan bezala, jendearen partehartzea handia izatea espero dute.

Mariano Zubiria taldekideak azaldu digunez, 500 lagun inguru biltzen da urtero, eta igandeko ibilaldian parte hartzeko jada 300 mendizalek eman dute izena. Kopuruak gora egingen

du, askok egun berean ematen baitute izena, 700 pezeta ordainduta.

Beti bezala, Lekunberri hain siko da ibilaldia. Handik Albia-sura joanen dira, Ttutturre mendira gero, Unako putzura ondoren, eta handik Irumugarrietara. Ganbora abiatuko dira ondoren, Igaratza, Putxerri, Agomari eta Albisura gero, eta handik San Migelera, eta berriro Lekunberri.

Denetara, 42 kilometroko ibilbidea prestatu dute antolatzaileek. Bost kontrol izanen dira bidean zehar, baita jateko hainbat leku. X

## Arronitz

## Maiatzeko jaiak ospatuko dituzte gaur eta bihar

■ Seigarren Zainzuri Lehiaketa egingen dute

Erredakzioa / Iruñea

ARRONIZKO herritarrek maiatzeko bestak ospatuko dituzte gaur eta bihar. Arratsaldeko zortziak puntuan hasiko da gaur asteburuko egitaraua, udaletxetik zerura bidaliko duten etxafuegoaren eztaidarekin batera. Mendizarra musika bandak alaituko du lehen orduetako giroa.

Gaueko bederatzietan, Tarantula taldeak hartuko du musikaren lekukoa, eta haren eskutik jaialdi apartaz gozatzeko aukera izanen dute herriko gazteenek. Ondoren, gauerdian aldera, herri berbera egingen dute, eta atsedendian, kalejira Mendizarra bandarekin.

Biharko egitarauari kirolak emanen dio hasiera, goizeko hamaiketan. Zarramonza eta Galdakaoko taldeak ariko dira lehiari futbolarekin. Eguerdian haurrentzako hainbat ekitaldi izanen dira plazan, auto-txokeak eta ohe elastikoak, alegia. Dohainik izanen dira. Hamalau urte bitarteko neska-mutilentzat eguerditik arratsaldeko ordu bata eta erdiak arte eta lauretatik seiak arte izanen dira zabalik, eta hamalau urtetik gorakoentzat, berriz, ordu bata eta erditik ordu biak arte, eta seietaatik zazpiak arte.

Arratsaldeko ordu bietan, halaber, Seigarren Zainzuri Lehiaketa nortzuek irabazi duten jakinaraziko dute. Lehiaketan parte hartu nahi duenak, 22 zentimetroko hamabi zainzuri aurkeztu behar ditu. Udaletxe arkupean aurkeztu beharko dituzte bihar 12:30etatik 13:30etara bitartean.

Epaimahaikideek, batez ere, kalitatea hartuko dute aintzakotzat, hau da, zuritasuna, batasuna, zuzentasuna, itxura eta loditasuna. Irabazleak hamar mila pezetako saria jasoko dute, sei milakoa bigarrenak, lau milakoa hirugarrenak eta bi milakoa laugarrenak.

Arratsalde partean kirola izanen da berriro ere nagusi. Bost eta erdietan, Zarramonza eta Santacara ariko dira lehiari futbol zelaietan. Ondoren, zazpi eta erdietan, herriko pilota partiduak jokatu dituzte.

Kirola amaitu ondoren, gaueko bederatzietan, Supernova orkestarekin dantzaldia izanen da, eta gauerdian, maiatzeko jaiak amaiera emanen dien herri berbera. Atsedendian kalejira egingen dute Mendizarra bandarekin. Ekitaldi horietaz guztietaz gain, gainera, gaur eta bihar goiz eta arratsaldeetan haurrentzako txangoak egingen dituzte Armonia Indomable peñaren Abre trenean. X

Nafarroako Antzerki Topaketak  
Iruñean

# Nafar antzerkiaren molde berriak

Hilarekin batera amaituko diren Topaketak 97 herrialdeko taldeen lanaren erakustoki dira

**J**oan den apirilaren 29an hasitako Antzerki Topaketak datorren asteburuan amaituko dira Nafarroako Antzerki Eskolan. Ikastetxeetako taldeak, afizionatuak eta profesional izateko bidean diren konpainiak ari dira lehian, Nafarroako antzerkigintzaren aniztasunaren erakusle. Gure herrialdeko antzerkiaren munduan, hain zuzen, ezinbesteko erreferentzia da Antzerki Eskola. Hango ikasle ohien eskutik datoz antzerkigintzaren molde berriak.

Edurne Elizondo / Iruñea

TOPAKETAK 97 abian da Iruñean joan den apirilaren 29az geroztik, Nafarroako jende gazteak egiten duen antzerkiaren erakustoki. Orain artean hamabi taldek parte hartu dute. Bihar Xahutondok *Memento* lana aurkeztuko du, eta igandean, Pabellon Teatro taldeak *Noches de amor efimero*.

Aurtengo Topaketak datorren asteburuan amaituko dira. Hilaren 30ean *La abuela echa humo* taularatuko du Keinu Antzerki taldeak, eta biharamunean, Bernardo Atxagaren testuetan oinarritutako *Hibridoak* aurkeztuko du Irubide Antzerki Tailerrak. Lehiaketa zein taldek irabazi duten ekainean jakinaraziko du epaimahaiak.

Topaketek, urtero legez, gure herrialdeko antzerki gaztea zertan den erakusteko balio dute. Eta Nafarroako Antzerki Eskolako (NAE) taula gainean gauza berri eta interesgarriak ikusi dira jada: ikastetxeetan gogor egiten dutela lan, zenbait talde afizionaturen lana kalitate handikoa dela, NAEtik ateratako ikasleak bide berriak jorratzen hasiak direla, ... Neurri batean edo bestean Nafarroako antzerkiaren irudia osatzen duten elementuak dira.

Eta Nafarroako antzerkiari buruz ezin da hitz egin Nafarroako Antzerki Eskola aipatu gabe. Hamaika urte igaro dira jada hango irakasleak hasi zirenetik herrialdeko gazteak aktore bihurtzen. 1986an Nafarroan ziren antzerki taldeek zuten beharrari erantzuteko jaino zen eskola, TEN (Nafarroako Antzerki Egonkorra) taldearen egoitzan abian jarritako ekimena jarraituz. TEN taldeko kideek eman zituzten Nafarroan lehenengo antzerki eskolak, baina lan akademikoaren ordeztu taula gainekoa aukeratu zuten, NAEren sorrera bultzatuz, beste zenbait taldeekin batera.

Hasieran Nafarroako Gobernuaren laguntza zuen kultur elkartea izan zen eskola, baina pixkanaka edozein irakaskuntza zentroak duen egitura lortu zuen. Gaur egun, 50 lagun ari dira han arte dramatikoa ikasten. Denerata, hala ere, 2.000tik gora pertsonak hartzen dute parte NAEk antzerkiaren inguruan urtean zehar antolatzen dituen ekitaldi, ikastaro eta tailerretan. Nafar-

Pasadas las 4 taldearen *Baby Boom en el paraiso* lana.

EGUNKARIA

arroako Unibertsitate Publikoko Antzerki Aretoaren ardura ere antzerki eskolarena da, bai eta Iruñeko kartzelan edo hainbat ikastetxetan abian jarritako proiektuena ere. Eskolak eskaintzen duen antzerki programazioa ikustera 20.000 lagunetik gora hurbildu zen iaz San Agustin kaleko egoitzara.

NAEko zuzendari Maite Pascualek balantze positiboa egiten du hamaika urte pasatu ondoren. Eskolak Nafarroako antzerkiari bizitasuna eman diola uste du, nahiz eta oraindik hutsune eta gabezia asko egon. Nafarroako Administrazioaren axolagabekeriak eta interes faltak kezkatzen du gehien zuzendaria.

**Antzerki Eskolak hamaika urte** • Arazo eta oztupoak alde batera utzita, Maite Pascual politik da, Nafarroako antzerki taldeak hasi baitira eskolatik at-

ratako aktoreak bereganatzen. Halaber, ikasle askok Nafarroan gelditu eta talde propioa osatzeko erabakia hartu dutela azpimarratu du NAEko zuzendariak. Talde berri horien lana goraiatu du, hain zuzen, Maite Pascualek, «bide berriak zabaltzen hasi baitira».

Gaur egun Nafarroan egiten den antzerkia definitzeko «askotarikoa» dela aipatu du antzerki eskolako zuzendariak: «Pailazoaren ikuskizunaren bidea aukeratu dute zenbait taldek, kafe-antzerkia beste batzuek, testu antzerkia eta antzerki garalkidea askok. Sortu dira pailazoaren antzerki berri egiten ari diren taldeak ere, komikien mundutik gertuago daudenak. Lanean denbora gehiago daramaten beste talde batzuek komediaren bidea aukeratu dute. Denetarik dago. Uste dut oraingoa momentu interesgarria dela, ibilbide luzeagoa duten taldeak hasi direlako hain bidea definitzen, batetik, eta bestetik, talde berriak bide berriak jorratzen hasi direlako».

Nafarroan antzerkiak bizi duen egoerak, dena den, antzerki talde-

TEN-Pinpilinpauza taldearen *El bailecito* kale antzerkia.

EGUNKARIA

profesionalen lana mugatzen duela uste du Maite Pascualek: «Azpiegitura falta izugarria dago, eta ez dago inolako zirkuiturik. Hori dela eta, bizi ahal izateko haur antzerkiaren bidea aukeratu behar izan dute talde askok, errazagoa delako, aktore gutxiago behar direlako eta aukera gehiago dagoelako hemendik kanpo aurkezteko».

Haur antzerkiaren alorrean, hain zuzen, euskarak bere txokoa aurkitu du, talde gehienek erdaraz eta euskaraz eskaintzen baitituzte ikuskizunak. Hor dira, besteak beste, Gus Marionetas, Popi eta Zaratrako, Kollins Clown, Trokolo, Txirrista, Zirko Ttipia, Azkona Kale Animazioa, Sambhu eta Iruña Pequeño Teatro.

TEN-Pinpilinpauza taldea ere euskarazko lehenengo lana prestatzen hasi da, *Sekula ezerako bideak*, alegia, haurrei zuzen-

dutako kale antzerkia. Nafarroako azken hogeitau urteetako antzerkigintzan giltzarria izan da TEN, erran bezala, talde horrek ahalbidetu baitzuen neurri handi batean Nafarroako Antzerki Eskolaren sorrera. TEN taldeko lehen ikasleak izan ziren gero NAEko lehen irakasleak.

Taldearen historian askotxo izan dira taularatu dituzten ikuskizunak, hala nola *Esperando al zurdo*, *Marijuana*, *El matrimonio blanco*, *El loco y la monja* eta *El ayunador*. 1988. urtean, Nafarroako Irakasle Eskolatik ateratako Pinpilinpauza taldearekin bat egin zuen TENek. «Taldea bion eragina batu genuen: TENen pertsonaia landuak, eta Pinpilinpauzaren kale antzerkia», azaldu digu Asun Abad TEN-Pinpilinpauzako kideak. Elkarrekin egin dituzte, adibidez, *El Quijote*, *El bailecito*, eta *La canción del bandido*, azken lana.

**Asun Abad:** «Eskaintza zabala da, talde asko dago, baina Nafarroan lan egitea oso zaila da»

**Belen Otxotorena:** «Taldea sortu genuenean, talde bakar batek ere ez zuen antzerki egiten helduentzat»

Nafarroako Antzerki Topaketak  
Iruñean

Asun Abaden ustez, lan horiek guztiek taldeko kideek bizitzari buruz duten ikuspegia islatzen dute, «bizi dugun garaiaren isla izan behar baitu antzerkiak. Hori da artearen edertasuna. Antzerkiak bizi duen garaiaren lekuko izan behar du». Nafarroan gaur egun diren taldeen bideak, halaber, anitzak direla azpimarratu du, eta talde berrien apustu berriak goraiatu ere bai. «Eskaintza ugaria da, talde asko dago, baina Nafarroan lan egitea oso zaila», salatu du.

**Talde berriak, bide berriak** • Nafarroako talde ugari horien artean hiru dira Xahutondo, T'Ombliigo eta Pasadas las 4. Lehenengoa talde afizionatua da, Iruñeko institutuetatik ateratako lagunek osatua. Ez baita ahaztu behar Ermitagaña, Irubide, Gurutze Plaza edo Cuatrovientos institutuetaiko antzerki tallerrek eskaintzen dietela iruindar gazteei antzerkiaren munduan murgiltzeko lehen urratsa. Unibertsitateetako taldeetan aritu ondoren, NAEko ikasle bihurtzen dira zenbait.

Reyes Ilintxeta Xahutondo taldeko kide da. Bihar, beste hama-



Iruña Pequeño Teatro antzerki taldeak euskaraz eta erdaraz egiten du lan.

LUIS AZANZA

## Taldeak ez daude ados topaketa antolatzekeko moduarekin

Beste urteetan ez bezala, ikastetxeetako taldeak gainontzekoekin lehian ari dira aurtan

David Goñi: «Nafarroan profesional izatea zaila da. Bide berriak jorratuta, gure lekua aurkitu nahi dugu»

bost lagunekin batera, Nafarroako Antzerki Eskolako taula gainera igoko da *Memento* antzezteko, Jose Luis Miral talde-kideak idatzitako lana. Nicola Sacco eta Bartolome Varizetti anarkisten historia hartu du abiapuntutzat.

«Antzerkia ongi pasatzeko modua da guretzat. Gustatzen zaitugu, gustura gaude eta kito. Afizionatu izateak nahi duzuna egiteko askatasuna ematen dizu, gero estreinatzen ez bada ere ez baita deus gertatzen. Guk denarik egin dugu, komedia, tragedia... Bihar aurkeztuko duguna, hasieratik bukaerara arte negar egiteko horietakoa da», azaldu digu Reyes Ilintxetak.

Antzerki Topaketak lehiaketatik kanpo, dena den, obrak aurkezteko aukera gutxi dutela azpimarratu du Xahutondoko kideak, eta, haren ustez, sare alternatiboa antolatu beharko litzateke talde afizionatuentzat. Gaur egun, Iruñeko Udalarekin egindako hitzarmenari esker Iruñeko hainbat aretotan lan egiteko aukera dute taldeok, baina Ilintxetak salatu duenez, «egoera ez da batere ona. Gutxi ordaintzen dute eta interes falta handia dago».

T'Ombliigo taldea NAEen ikasle izandako Virginia Senosiain, David Goñi, Rosa Arnedillo eta Jose Felix Otsagabia gazteek osatzen dute. Hilaren 9an aurkeztu zuten NAEen Ramon Vidalek zuzendu *Balada tierna de un gamusino* lana. Zazpi hilabete baino ez dira igaro taldea sortu zutenetik, eta antzerki munduko

NAFARROAKO GOBERNUAK Kiroletako eta Gazteriaren Institutuak antolatuta Antzerki Topaketak partaideen haserrea piztu dute aurtan, aurreko urteetan ez bezala, ikastetxeetako taldeen eta afizionatuen arteko bereizketarik ez dutelako egin antolatzaileek. Talde guztiek parte hartzen dute lehiaketan, maila berean. Orain arte, afizionatuen artean bi irabazle hautatzen ziren; ez, ordea, ikastetxeetako taldeen artean, denen artean banatzen baitzen saria. Halaber, lehiaketan parte hartzeko izena eman zuten guztiek ezin izan dute parte hartu, bost talde lehiaketatik kanpo geratu baitira.

Horietako bat izan da Iruñeko Cuatrovientos Institutuko taldea. Carlos Bergasa dute hango ikasleek zuzendari. Eta Bergasa ez dago batere pozik aurtengo Topaketan antolaketarekin: «Ikastetxeetan egiten den antzerkiak ez du zerikusirik gainontzeko tal-

jende askoren ahotik hitz ederrak entzun ditu jada; andregaiak utzi ondoren bere buruaz beste egin nahi duen kamareroaren istorioa kontatzen du lan horrek. Bihar Arsaian ikusi ahal izanen da, gaueko 11:30etatik aurrera.

David Goñik antzerki «ganberroa» egiten dutela aipatu digu. «Urbanoa», gaineratu du Rosa Arnedillok. Virginia Senosiainek lehenengo lan honetan —taldeko kideek idatzia— komikiaren mundutik jaso duten eragina azpimarratu digu. Edonola ere, «antzerki ezberdina» egin nahi

de gazteek egiten dutenarekin. Helburuak eta moldeak erabat ezberdinak dira; ez du zentzurik denak zaku berean sartzeak».

Bergasak azpimarratu duenez,

Iruñeko institutuetan gero eta leku gehiago du antzerkiak, «eta ikastetxe batzuetan, hautazko ikasgaia da». Eta beste ikasgai bat den aldetik, antzerkia insti-



Xahutondo antzerki taldeko hiru kide, antzezpina egiteko jantziak prestatzen.

XAHUTONDO

taldeak antzerkiak egiteko aukera dagoela uste dugu». Orain, komikotasuna landuz helduentzako antzerkia egiteko aukera dagoela uste dugu.

Pasadas la 4 taldeko kideek ere helduentzako antzerkiaren alde egin dute apustu. Orain dela bi urte sortu zen Pasadas las 4 eta NAEko ikasle ohiak biltzen ditu. «Une hartan ez zen talde bakar

bat ere helduentzako antzerkia egiten eta aukera ona izan zitekeela pentsatu genuen», azaldu digu Belen Otxotorenak. Apirilaren hasieran Zizur Nagusian estreinatu ondoren —antzerki talde askorentzat irtenbide polita da hango Kultur Etxeak antolatzen duen programazioa—, hil honen 9an aurkeztu zuten NAEen, Topaketan barruan, *Baby Boom en el paraiso*, Emilia Ekaik zuzendu lana.

Obra horretan Inma Gurra haurdun dagoen Ariana da. Ramon Vidal aktoreak egiten du

tutuetan ikasleen nortasuna eta gaitasuna garatzeko tresna bat da Bergasaren ustez: «Dramatizazio teknikak, ahotsa edo gorputza lantzeko ariketen bidez lan egitea da funtsezkoena. Horretaz gain, antzerki obra bat prestatu eta antzezten dugu, baina obra, berez, ez da gauzarik garrantzitsuena, aurretik dagoen prozesu osoa baiziki».

Antzerki Topaketetan parte hartzen ari diren taldeak ere ez daude ados aurtengo lehiaketa antolatzekeko Nafarroako Gobernuak aukeratu duen moduarekin. Emilia Ekaik antzerki zuzendariak azpimarratu duenez, «antolaketa ez da batere logikoa. Ikastetxeetako taldeak profesional izan nahi dutenekin ari dira lehian, eta horrek ez du zentzurik, ez da bidezkoa inorentzat». Iritzi berekoa da Reyes Ilintxeta Xahutondo taldeko kidea: «Institutuetaiko taldeen artean lehia piztea oso itsusia da».

haren senarraren papera. «Haur bat izan nahi duen emakume baten istorioa da. Haurdunaldi guztia eta aurreko eta ondorengo uneak islatzen ditu obrak», azaldu digu zuzendariak.

Pasadas la 4 taldearen bigarren obra da Emilia Ekaik zuzendutakoa. Lehenengoa taldeko kideek idatzitako testua izan zen. Baina Inma Gurra azpimarratu duenez, «nahiago dugu testu antzerkia egin. Testu on bat aurkitzea zaila da, baina topatzen duzunean, lanaren zati handi bat egina duzu». X

Xanti Begiristain

## Euskal presoen hizkuntz eskubideak

■ Euskal preso politikoen aldeko Senideak izeneko elkarteak, sinadurak biltzen hasi da aldarrikatzeko aipaturiko presoek hizkuntz eskubideak.

Argi dago euskal preso politikoen afera, Euskal Herrian bizi dugun auzi eta gatazka politikoa zaharraren ondorioetarako bat baino ez dela. Aspaldiko kontua gainera, eta oso konplexua. Baina, gaur, hizkuntz eskubideen gaia-ri baizik ez diot heldu nahi.

Fede oneko jende askok pentsa lezake Euskal Herrian errespetatzen direla, besteak beste, hizkuntz eskubideak, eta, era berean, baita Espainia eta Frantziako estatuetan ere. Nola bat hala besteak ere esaten baitute erregimen guztiz demokratikoa dutela.

Hala ere, makina bat froga dago demostratzeko euskal preso politikoen giza eskubideak ez direla errespetatzen beren osotasunean, ezta urrutitik ere, eta jakina, arrazoi beragatik esan dezakegu, hizkuntz eskubideak ere ez zaizkiela batere ongi betetzen.

Hona hemen, ba, Senideak elkarteak espezteraturik dagoen Euskal Herriko bizilagun ororentzat euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzen, eskatzen dituen gutxienezko puntuak:

a) Euskara edota euskaraz ikasteko eskubidea: euskara ikasi nahi duenari erraztasunak emanez, edozein ikasketak euskaraz egin nahi duenari inolako oztoporik ez jarritz, eta aipatu ikasketak egiteko beharrezko materiala (idatzia nahiz ikus-entzunezkoa), zein euskal prentsa idatzia (Argia, EGUNKARIA eta abar) trabarik gabe jasotzeko bideak ezarritik.

b) Harreman pertsonalak euskaraz izateko eskubidea: mintzatzen diren *vis a vis* izenekoetan, inolako eragozpenik gabe senitateko eta lagunekin normaltasun osoz euskaraz hitz egiteko baimena emanez. Eta idatzizko komunikazioak (gutunak, postalak eta abar), baita telefono deiak ere, euskaraz egiteko debekua kenduz.

Honako hauxe ere badiote Senideak taldekoek: «Arestian aipaturiko eskubide horiek bermatu badira, Euskal Herriko bizilagun orok ezinbestean, bere etxetik ahalik eta gertueneko espetxean egon behar duenez gero, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak

1996ko urriaren 3an hartu zuen erabakiarekin erabateko adostasuna agertu nahi dugu, baita beraz gauzatu dadin bitartekoak jar ditzaten eskatu ere».

Baina gezurra badirudi ere, eskubide horiek oso sarritan zapaltzen dituzte. Ikus itzazue bestela, Euskal Herrian Euskaraz orain dela bi urte egindako ikerketa baten ondorioak:

1.— Preso batzuek, eskutitzak euskaraz idazteko ez dute baimenik.

2.— Beste preso batzuek telefonoz, nahitahi, erdaraz hitz egitera behartzen dituzte.

3.— Preso batzuek eskutitzak euskaraz idatzi ditzakete, baina helmugara ez dira iristen, edo bestela oso epe luzean ailegatzen dira.

4.— Kasu batzuetan telefonoz hitz egin dezakete baina elkarrizketak grabatu egiten dizkiete.

5.— Preso askok ezin dituzte beren ikasketak egin, apunteak, liburuak eta beste ez zaizkielako iristen, batez ere euskaraz daudenak.

6.— Zenbait kasutan, komunikazioetan euskaraz hitz egiteagatik, sendikoak kabinetatik bota egin dituzte.

7.— Preso euskaldun eta euskaltzale hauek Euskal Herriko kanpo egoteaz gain, euskaldunak direnez, bereizkeria pairatzen dute ez dietelako uzten beren hizkuntzan mintzatzen, ezta irratia eta telebista euskaraz entzuten ere, prezeski, Euskal Herriko urrun edukitzen dituztelako.

8.— Euskalduntze prozesuan diren presoek, espetxetan ez diete aukerarik ematen beren ikasketekin jarraitzeko.

Gauza horiek guztiak ikusirik, EHEk egoera hori salatu eta zera aldarrikatzen du:

1.— Euskal Herriko guztiok euskaraz bizitzeko eskubidea dugula.

2.— Euskaldun guztiok euskaraz bizitzeko eskubidea dugula.

3.— Euskara Euskal Herriko hizkuntza da eta ez zigor neurriak aplikatzeko tresna.

Dena den, Espetxe-Lege Organiko Nagusietan, aurreko gauza guztiak eta gehiago dira oso legezkoak, baina gero praktikan, inondik ere ez. Parisko epaiketetan ere debekatu diete euskara erabiltzea.

Besterik gabe, ba, sina dezagun presoek hizkuntz eskubideen alde. ■

Klasiko bitxi, arrot klasiko

Joxemiel Bidador

## XIX. mendeko zenbait mintza-gidez aipu labur

■ EZ zen nolana hiko Luis Astigarraga Ugartek ondu liburuak pairatu izan duen edizioen kopurua, 44 hain zuzen, 1825 eta 1935 urte bitarte luzexkan. *Diccionario manual bascongado y castellano y elementos de gramática para el uso de la juventud de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa, con ejemplos y parte de la doctrina cristiana en ambos idiomas* izenburupean azaldu zen estrainekoz esan 1825. urtean Tolosako Lamarenean. 1840.ean argitara emaniko hirugarren edizioa ikutu hainbat nahiz gehigarri zenbaituz horniturik azaldu zen: «Aumentado con varios ejemplos y unas conversaciones familiares muy útiles para la enseñanza de la lengua castellana». Gipuzkoarako idatzia zen saio honek Bizkaiaren ere bere islada izan zuen, eta izenburu berdintsupean, *Diccionario manual bascongado y castellano y elementos de gramática para uso de la juventud de Vizcaya*, 1884.ean argitara eman zena, E.A.B. akrostikoak sinaturik, li-tekeena, Eusebio Azkue Barrundia zenari egotzi genezalokeen. Erderaz motelaren motel eta traketsi balzik moldatzen ez zekienarentzat idazki honek hasmenta latz gogorra zuela otu zaigu: «Bederatzi dirade gaztelaniac edo Gaztelaco hizcuntzac daucan hitzmueta edo esaldiaren parteac, euscarac eta beste hizcuntza ascoc dituzten becela, latifiac zortzi baicic ez baditu ere». Halaz guztiz, zatirik samurragoak bazituen, esate baterako, ahitze orrialdetan ikasle aurreratuak irakurri zezakeen *Prestutasunaren saria* izenburu daroan ipuin klasikoak: «Ondasunez eta urtez cagatutaco aita batec nai izan cituan partitu bere eriotza ba-o len cituen iru semeen artean bere aberastasin guciac: nic neretac gordetzen det oraindic, esan cien, eguicariric prestu eta honraduen baten bidez gueyen sifialtzen dan zuetaco ari emateco se-alpenetua daucadan valio andico diamante bat. Aloguera au iristeco semeac alcargandic zabaldu ciran, ba-a iru illabeteren buruan batu ciran aitaren echean (...) Iru anayan azque-necoac itzezin zuen guis onetan: egun batez arquitu det nere etsairik andiena, amilloqui izugarri baten ertzean lo betebetan, non murguialdiric chiquienean eririco baitzan, bere vicia nere escu artean cegoen, guciac ere pisca bana esnatu det, eta perilletic atera det. Oh ene seme, deadar eguin zuen aita, semeari samurquiro beguiratuaz, diamantea zurea da, cer animaco anditasun gueyago bere etsayari on a- andi bat egutea baño».

Juan Maria Eguren eskola begiraleak ondu *Método práctico para enseñar castellano en las escuelas vascongadas*, Gasteizen agertu zen, 1867.ean. Dena dela, ikastetxeetan erabilgarriak direnez gainera ere bidailarietarako aproposa zen *Guía manual del lenguaje para uso de los viajeros en el País vasco* idazkia argitara eman zuen. Bertan jaso zituen elkarrizketak egitan gerta litezkeen ereduari ertsiki lotuak ziren: «-Erri ori da Villafranca, eta bereala goaz Beasainera iristera. -Alata non guciac laster abiatuco ditugu lecu oetan igaro bear ditugun maqui-a bat lurrutspe, baldin gaizqui ezpadauzcat gogoan. -Bai jauna, estaciona guera, oarterazitzen diot, dijoala prestatua, icusten duenean ondo beguiratzeco, eta icusico du bide onetaco obraric andien bat. -Eta cer obra izugarri da ori? -Da Pirineoac ceacatzen dituen biadariric andiena: bost tocartzeguiña, ceñtuetatic bic dituzten 52 metro eta beste irurac 60 metroco beguiac. Ormaizteguico erriaren ga-etic igarotzen da, eta 34 metro du altura. Beguiac beza emendic aronz eta icusico du. -Eguiaz icusten det: burnizco zubi eder bat da. -Gucic laster igaroco guera beraren ga-ean. Or du Ormaiztegui, orañ bidariaren ga-ean gaude. -Goi onetatic bazter oriet eguiten duten irudia preclotsua da. -Or dago Zumarraga. -Trena gueratzen da, eta jachitzeco prestatzera noa. -Beguiac bizayo lenago estacionen ezquerretic dagoan eche ari, icusten du ondo? -Bai jauna, eta cer icusgarri dauca eche orrec? -Da Filipinetaco Ugarteac irabazi cituen Legazpi sonatua jayozan echea». Ildo horretatik abiatutik ere, L. Capistouren *Guide du voyageur dans la province basque du Guipuzcoa avec carte et vocabulaire franco-basque* genueke, 1877.ean argitara elki zena.

Azkenik, ikus dezagun J. P. Dartayet apez lapurtarraren *Guide ou manuel de la conversation et du style épistolaire français basque, utile aux étrangers et aux basques eux-mêmes*: Guidaria edo escu liburu frantseserik eta escuaraz, Miarrizteko Andrénean eta 1861.ean agertu zena. Bost zati ditu lan honek: hiztegia, elkarrizketak, gutunak, erranairuak, olerkiak eta kantak, eta aditzaren inguruko saio bat, geroantzean liburu soil bezala agertu zena: *Le mécanisme de la construction du verbe basque en dialectes du Labourd et de pays limitrophes présenté en tableaux*. Honetan ere, erabilgarritasunari aiduru legoke egilea, eta jaso zituenak kalean edozein unetan adi zitezkeen horietakoak genituzke ezbaierik gabe: «-Despeidaren emaitera heldu nautzu, pharticecoa naiz bihar. -Eta nola? Carroan, bachetan, burdinazco bidean, lehorrez, urez, itsasoz? -Ez dakit sobera nola, cer ordutan phartitzen da burdinazco bidean? -Oren guciac, bainan harat heldu behar da oren laurden bat aincinetic, bertcenaz, huts eguin cinezake. Burdinazco bidean eguin ditakeien solasa: Lehia gaiten, gure billetac hart ditugun. Sart gaiten igurikitceco lekhuan, salan. Horra abiatceco histua. Yalgui gaiten laster eta lekhuan on bat hauta dezagun». ■



# Zizurko Espeleologia Taldeak urtea bete du

Zizur Nagusiko Ibaia taldea iazko maiatzaren 23an sortu zuen herriko lagun talde batek

Edurne Elizondo / Iruñea

LAGUNARTEAN hasitako abenturak kide berriak bereganatu zituen segituan, eta gaur egun, Ricardo Alonso eta Marcos Sanchezekin batera, Zizur Nagusiko beste lau pabost lagunek osatzen dute Ibaia Espeleologi Taldea. Baina taldekideek azpimarratu dutenez, «herriar guztiak dute zabalik elkarteko atea».

Taldeko gainontzeko kideek bezala, aspaldi eman zituen Ricardo Alonsok lehen urratsak espeleologiaren munduan. Ibaia taldea sortu baino lehen, hain zuzen, Nafarroako beste talde batzuetan ibiliak dira denak. Esperientzia, beraz, ez zaie falta, ezta lan egiteko gogoia ere. Orain urtebete elkarte sortu zutenean, haiek hain gogoko duten kirol jarduera Zizur Nagusiko herriarren artean ezagutarazi eta bultzatzea zuten helburu —eta oraindik ere badute—. Oraingoz, hain zuzen, herriarrei zuzenduak dira antolatzen dituzten ekitaldiak.

«Txikitandik gustatu zait espeleologia. Mundu berri bat da, aukera ugari eskaintzen duen kirola. Eta hori erakutsi nahi diegu Zizur Nagusiko herriarrei», azaldu digu Ricardo Alonsok. Nafarroako sima eta kobazuloei buruz hitz egiten duenean, erraz igartzen zaio Ricardo Alonsori espeleologia maite duela: «Zoragarria da gure herrialdea. Iparralde osoa sima eta kobazuloz betea dago. Eta guztiak dira ederrak, bakoitza da mundu berri bat».

Eta Nafarroan jende asko da Ricardo Alonsoren iritz berekoa, Ibaia taldeko kideak azpimarratu duenez, espeleologi talde ugari baitago Nafarroan. «Praktikatzeko aukera asko dagoenez, sima eta kobazulo asko dagoenez, zaleak ere asko dira, eta gero eta gehiago, gainera».


Simak eta leizeak, dena den, ez dira Ibaia taldeko kideek bisitatzeko dituzten toki bakarrak, arroiak ere jaisten baitituzte. Baina horretarako, Nafarroa baino Huesca dute gogokoago, «askoz aukera zabalagoa baitago han».

## Kobazulo eta arroiak

**ibilaldiak** • Espeleologia Zizur Nagusiko herriarren artean ezagutarazteko, ibilaldiak prestatzen dituzte asteburuetan Ibaia taldeko kideek, sima, kobazulo eta arroiak bisitatzeko. «Gure asmoa jendeari oinarritzko ezagupenak ematea da, arriskurik gabe ibil daitezzen sima eta kobazuloetan. Horregatik, federatuta egotea funtsezkoa da. Jendea konturatu behar da espeleologia egiteko kontuz ibili behar dela, geure burua zaindu behar dugula, eta, aldi berean, kobazuloak», azpimarratu du Ricardo Alonsok.

Ibaia taldeko kideak espeleologia kirol arriskutsua dela gogoratu digu, eta, aldi berean, jende askoren axolagabekeria salatu: «Jende asko espeleologia zer den jakin gabe sartzen da kobazulo edo simetan. Behin baino gehiagotan aurkitu izan dugu norbaitek kobazulo batean harrapatuta, zer

**Z**izur Nagusiko Ibaia Espeleologi Taldeak badu egunotan zer ospatu, lehenengo urteurrena, hain zuzen ere. Izan ere, iazko maiatzaren 23an jarri zen abian Ricardo Alonso eta Marcos Sanchez herriko lagunaren eskutik. Urte honetako lanarekin pozik dira taldekideak, eta herriarrek egin harrera eta eskaini laguntza eskertu nahi izan dute.



Ibaia espeleologia bultzatu nahi du Zizur Nagusiko herriarren artean.

ARTXIBOKOA

egin jakin gabe. Horregatik, jendeak ikasi behar du halako lekutara bakarrik ez joaten, garrantzitsua dela federatuta egotea. Hori da guk Zizur Nagusian egin nahi dugun lana, hau da, espeleologia egin nahi duenari zer egin behar duen irakatsi, halako gauzak gerta ez daitezzen, jendea deus jakin gabe edozein lekutan sar ez dadin».

Arrisku egoeretan zer egin jakitea, halaber, funtsezkoa da Ricardo Alonsoren ustez: «Lasaitzea da gauzarik funtsezkoena, egoera aztertu eta erabakirik egokiena hartu ahal izateko».

Ibaia Espeleologi Taldeak urte bat bakarrik badu ere, hamabi

hilabeteotan hainbat lagunek hartu dute parte elkarteak antolatu ibilaldietan. Txangoak, dena den, ez dira berdinak izan denetzat. Neska-mutil gazteenak erraz bisita daitezkeen kobazuloetara eramantzen dituzte. «Hasieran pixka bat beldurtzen dira, baina berehala ahaztu egiten dute hasierako ikara», azaldu du Alonsok. Jende helduagoak, berriz, arroiak nahiago ditu simak eta kobazuloak baino. Eta Ibaia taldeko kideak badaki zergatik: «Kobazulo bat bisitatzeko baino askoz ere zirrarragarriagoa delako, ura dagoelako, ibaia jaitsi behar duzulako. Ezberdina delako, finean».

Herriarrei espeleologia zer den erakutsi ondoren, kide gehiago lortzea espero dute Ibaia taldeko kideek. Orain artean egindako lanarekin, dena den, pozik dira, eta Zizurko Zendearen eta herriko Gaztetxearen aldetik jaso duten laguntza biziki eskertu nahi izan du Ricardo Alonsok. «Jaz herriko eskalada taldearekin egin zuen bezala, aurtengo espeleologia gure taldearen bitartez bultzatu nahi izan du Zendeak, eta hori oso garrantzitsua da guretzat. Gaztetxearen kideen laguntza ere oso baliagarria izan da guretzat, txango eta irteera guztiak antolatu ahal izateko».

## Urteurrena ospatzeko ekitaldiak

IBAIA taldeko kideek Zizur Nagusiko herriar guztiak ospatu nahi dute lehenengo urteurrena, eta horretarako, hainbat ekitaldi prestatu dituzte herriko haur eta helduentzat. Haurrei dagokienez, datorren hilaren 6, 7, 13, 14 eta 15ean izanen dute espeleologiara hurbiltzeko aukera. Oinarritzko teoria ikasi ezezik, praktikatzeko aukera ere izanen dute neska-mutilak.

Horretarako, Zizurko Zendeak herriko rokodromoa utziko die Ibaia Espeleologi Taldeko kideei. Halaber, txangoak egingen dituzte hainbat kobazulo ezagutu ahal izateko. Helduei dagokienez, antzeko ekitaldiak prestatuko dituztela jakinarazi digu Ricardo Alonsok, baina oraindik ez dituzte ez egitaraua, ezta egunak ere zehaztu.

Orain artean egin duten lanarekin jarraituko dute, finean, Ibaia taldeko kideek. Eta lan horretan naturarekiko errespetua funtsezkoa da Zizur Nagusiko espeleologoentzat. «Gazteekin egin behar dugu lan, batez ere, orain arte gertatu izan diren hainbat gauza berri ere gerta ez daitezzen. Jendea kontzientziazten hasi da, baina astakeria galantak egin dira kobazulo eta simetan. Benetako zabortegi bilakatu dira horietako asko Nafarroan».

Ricardo Alonsoren ustez, lotsagarria da gure herrialdeko hainbat leizeren egoera: «Denetarik aurkitu izan dugu. Kobazulo askotako paretak margotuta daude. Aurizberrin, adibidez, pintadaz beteta daude leize bateko horma guztiak. Simetan, halaber, albatariak animalientzat erabiltako xiringak aurkitu izan ditugu askotan, baita garbigailuak ere. Jendeak zabortegiak balira bezala erabili ditu simak. Eta ezin dugu ahaztu botatzen dugun guztia gero berriro ateratzen dela, kutsatuta». Artzainak kontzientziazteko azken urtean egindako lana gogoratu du, halaber, Ricardo Alonsok, simak animalia hilak botatzeko erabili izan baitituzte.

Espeleologoena lana ere bada bisitatzeko dituzten kobazulo eta simak zaintzea, Ibaia taldeko kidearen ustez. Horregatik, leizeak errespetatu egin behar direla irakasten diete lehenik eta behin haiekin txangoak egitera doazen herriarrei. «Karburozko argiotzia ongi erabiltzen irakasten diegu, adibidez, jende askok leize barruan hustu egiten baititu, eta horrek asko kutsatzen du. Leizetik kanpo egin beharreko lana da, betiere». X

\* ◆ **Manuela Jimeno** ◆ Musikan doktorea

## «Musikaren garrantziaz jabetu dira gurasoak»

**M** Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) irakasle Manuela Jimenok zuzendutako ikerketa taldeak argitara eman ditu hiru eta hamabi urte bitarteko neska-mutilei musika irakasteko bi liburu, *Propuesta de secuenciación de contenidos musicales* eta *Propuesta de secuenciación de contenidos para escuelas de música I y II*. Izenburuon azpian gordezten den mamia erakutsi digu Jimenok.

Edurne Elizondo / Iruñea


LIBURU horietan, musikak haurren hezkuntza osatzeko duen garrantzia azpimarratu dute egileek —Jimeno bera, Oihane Manterola, M<sup>a</sup> Angeles Tirapu, M<sup>a</sup> Luz Arregi, Santiago Garai, Sofia Garin eta Garbifite Sertutxa—, baita hiru urte baino ez duten neska-mutilentzat ere. Liburuak edukinari eta musikari buruz mintzatu gara Manuela Jimenorekin.

■ **Hainbat ikastetxe eta musika eskoletako irakasleekin elkartu zara proiektu hau abian jartzeko. Nola sortu zen musikarirakasteko bi liburu hauek idazteko ideia?**

LOGSEren (Espainiako Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legea) garapena zela-eta kezkatuta ginen, eta kezka horri aurre egiteko sortu genuen taldea. LOGSEren arabera, hain zuzen, kontserbatorioen ordezkari musika eskolak dauzkagu. Baina ikusten genuen LOGSEk tarte zabala uzten zuela musikaren irakaskuntza zentroen nortasunaren arabera, dauden lekuaren arabera eta beste hainbat elementuren arabera emateko. Ez zegoen inolako diseinurik.

■ **Hori egin nahi duzue zuek, diseinu bat sortu?**

Azken finean, musika eskolei dagokienez, liburuok kaleratu baino lehen ez zegoen deus; ain-



Manuela Jimeno NUPEko irakaslea Arrosadiako kanpusean.

LUIS AZANZA

tzindariak gara arlo horretan. Gure lana hiru eta hamabi urte bitarteko haurren jarrera landu eta, neurri berean, haien gaitasuna garatzea da. Ikastetxeetan urte batzuk badira adin horretako neska-mutilekin lan egiten dutela, baina musika eskoletan ez, zortzi urterekin hartzen dituzte.

■ **Zure ustez, beraz, funtsezkoa da haurrei musika txikitandik irakastea?**

Gure helburua neska-mutilei hezkuntza eta kultura musikala eskaintzea da, musikara hurbiltzea. Noski, denak ez dira gero profesionalak izanen, baina hori ez da garrantzitsua. Inportantea haurrek oinarrizko formakuntza izan dezaten da. Gaitasun gehiago duenak, nahi badu, mu-

sikaren ildotik jarraituko du, eta nahi ez duenak, berriz, ez. Baina oinarrizko ezagupenak izanen ditu horrek ere, musika denona baita, finean, eta denok dugu ikasteko eskubidea. Musika entzuterara joaten denarentzat ere garrantzitsua da heziketa, baita lagunekin musika taldea osatu nahi duenarentzat ere.

■ **Hiru urteko neska edo mutil bati nola irakasten ahal zaio musika?**

Jokoen bidez, batez ere, espresioa eta manipulazioaren bidez, bizipenen bitartez. Lehenengo gauza haurrak zerbait bizitzea da, horren bidez pentsatzen duena azalduko du, esperientzia berriak izanen ditu, eta horiek manipulatzen, erabiltzen eta erreprezentatzen ikasiko du.

■ **Zuen proiektua hainbat musika eskoletan jarri duzue abian. Nolako izan da esperientzia orain artean?**

Iaz hasi ginen musika eskoletan. Ikastetxeetan aspaldi hasi

ziren haur txikiekin lanean. Eta orain artekoa ikusita, emaitza oso positiboa izan dela erran behar da. Lau haurrek osatu taldearekin hasi ginen joan den ikasturtean. Aurten aurreinskripzioa zabaldu genuen berriro, eta jada hainbat talde ditugu. Gurasoek interesa dutela erakutsi dute, eta konturatu dira haurrak gustura daudela, baita hiru urteko neska-mutilak ere. Gorputzarekin egiten dute musika, tresna txikiak erabiltzen dituzte, musika entzuten dute. Oso polita da.

■ **Orain artean irakaskuntzan hutsune bat zegoela uste duzue?**

Ikastetxeetan azken urteetan lan egin da esparru horretan, ni neu ere aritu naiz, eta jende anitz ezagutzen dut orain gogor ari dena. Musika eskoletan lan egitea falta zen, orain artean, zortzi urterekin hasten baitziren haurrak. Eta nire ustez, zortzi urte izan arte espetzea ez da egokia. Neska-mutilekin hiru urte dutenean lanean hasten bagara, errazagoa

s o s l a i a

Manuela Jimeno iruindarra musikan doktorea da 1994. urteaz geroztik, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Psikologia eta Pedagogia Departamentuan egiten du lan. Musikaren didaktika da haren ezagupen arlo nagusia, nahiz eta beste hainbat alor ere landu.

\*

Musikaren munduan Pablo Sarasate kontserbatorioan eman zituen, hain zuzen, lehen urratsak. Ikasle izan zen lehendabizi, eta irakasle gero, baita Iruñeko beste hainbat ikastetxetan ere. Ondoren, ezkondu eta gero, Agoitza joan zen bizitzera.

\*

Agoitzen ere lan bera egin jarraitu zuen. Ondoren, Iruñera itzuli zenean, irakasle Eskolan hasi zen irakasle. Gaur egun, piano eta sofeio irakasle titulua du. Abesbatzak zuzentzen ere esperientzia zabala du, hemezortzi urterekin hasi baitzen.

izanen da duten gaitasuna garatzea gero. Hori da gure proposamena. Orain, denbora behar da proiektuaren emaitzak ezagutu eta aztertzeko. Baina uste dut metodologia bizi eta aktiboa erabiliz, oso baliagarria izan daitekeela musika hiru eta hamabi urte bitarteko haurrentzat.

■ **LOGSEren hainbat aldaketa izan dira musikaren irakaskuntzari dagokionez. Egoerak hobera egingen duela uste duzue?**

Nire ustez LOGSEk musikari duen garrantzia aitortu dio, aintzakotzat hartu du. Orain arte sende pobre eta baztertua izan da, eta ez zen kontuan hartzen, besteak beste, sentsibilitatea garatzeko musikak duen balioa. Hizkuntzak ere errazago ikasten ditu musika dakien haur batek. Neska-mutilen hezkuntza osoan berebiziko garrantzia du musikak. Eta uste dut gurasoak azkenik horretaz jabetu direla, eta hasi dira seme-alabak musika ikastera bidaltzen. x

«Metodologia bizi eta aktiboa erabiliz, oso baliagarria da musika hiru eta hamabi urte bitarteko haurrentzat»

## BEKARIO!

Zaldi Eroa

